

OÑATIKO EUSKARAREN
ERABILERAREN
KALE NEURKETA 2007

2007ko uztaila
Eduarne Arkauz eta Amaia Kerexeta

0. AURKIBIDEA

1. Kale neurketaren garrantzia eta helburuak	3
2. Sarrera	4
3. Fitxa teknikoa	6
3.1. Hizketan entzundakoak	11
4. Euskararen erabilera	13
4.1. Orotara.....	13
4.2. Adin taldeka.....	15
4.3. Erabilera ezagutzarekin konparatuz.....	20
4.4. Sexuka	22
4.5. Guneka.....	25
4.6. Ibilbidearen arabera	31
4.7. Etorkinak	32
5. Ondorioak	33
6. 2006ko proposamenei erantzunez.....	35



1. NEURKETAREN GARRANTZIA ETA HELBURUAK

Hizkuntza baten egoera ezagutzeko oinarrizko hiru faktore dago: herritarren jarrerak, ezagutza eta erabilera. Hiru datu hauen azterketa zehatzak beharrezkoak dira hizkuntza politika oso bat eratzeko; are gehiago, euskararena bezalako egoera minorizatua gainditu eta normalizazio planteamendu eraginkorrak bideratzeko.

Euskal Herrian hainbat lan egiten dira jarreraren, ezagutzaren eta erabileraren gainean. Batzuk aipatzearren: "Euskararen Jarraipena", Euskal Herri osoko datuak kontuan hartuz Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen soziolinguistika inkesta (azkena 2001ean); Iñaki Martinez de Luna eta Kontxesi Berriotxoak zuzendutako "Etorkizuna Aurreikusten 99" (2000); Siadeco ikerketa-taldeak egindako hainbat inkesta...

Dena den, inkesta eta neurketa baten arteko aldea nabarmendu beharra dago. Izan ere, inkestan hizkuntzaren erabilera aitortua jasotzen da, iritzi subjektiboa, hiztun bakoitzak *uste* edota *adierazi nahi duena*; neurketa batean berriz, ez zaio hiztunari galdetzen, objektiboki behatutako emaitza da ikerketan jasotzen dena. Hots, neurtzaileak, kolean dabilela, entzun eta apuntatu egiten du. Eta hau da Kale Neurketak egiten duen aportazio azpimarragarriena.

2. SARRERA

Esku artean daukazun hau, Oñatiko **bederatzigarren** euskararen erabileraren kale neurketa duzu. 1989an lehenengoa egin zenetik, kale neurketa guztiak sasoi eta baldintza berdinetan egin dira. 2007koa, ordea, garaiz aldatu dugu, ondorio adierazgarriak izan zitezten lortu beharreko gutxieneko laginarekin arazoak baikekituen eguraldiaren eraginez. Aldaketaren ondorioz, jarraian ikusiko dugun moduan, gutxieneko muga gainditu egin da eta hiztun gehiagorengana heltzea lortu da. Jakinaren gainean gaude, hala ere, orain arte egindako neurketen bilakaeran eten bat eman dela, neurketa guztiak ez baitira sasoi eta baldintza berdinetan burutuak izango. Dena den, garrantzitsuagoa irizten diogu garaiz aldatzeari, neurketaz neurketa benetako errealitatea ez islatzen jarraitzeari baino.

Aipatu beharrean gaude lan hau egiterakoan aurreko urtetan egindako kale neurketako txostena hartu ditugula oinarri.

Ondoren, lan honetako atal ezberdinetan aurkituko duzunaren laburpen txiki bat daukazu:

Lehendabizi, fitxa teknikoari dagokionez, batetik, kale-neurketa noiz, non eta nola egin den zehazten da eta, bestetik, aurtengo laginari buruzko xehetasunak ematen dira.

Datuen azterketa "Euskararen erabilera" izenburudun atalean egin dugu. Bertan, irakurketa orokorrarekin hasi eta adin taldekako, ezagutzari buruzko, sexuaren arabera, gunekako eta ibilbidekako eta etorkinei buruzko datuak eman eta aztertzen dira, hurrenez hurren.



Oñatiko euskararen erabilerari buruzko ondorioekin eta aurreko neurketan egindako proposamenen erantzunak luzatuz bukatzen da lan hau.

Egileok, txostena ulergarri eta era berean irakurlearentzat lagungarri izango den esperantzan egin dugu. Izan ere, euskararen normalizazioan aurrera egin nahi badugu ezinbestekoa da egungo errealitatea zein den ezagutzea; eta horixe da, hain zuzen, kale neurketarekin lortu nahi dena.



3. FITXA TEKNIKOA

Kale neurketaren helburua kaleetan leku, egun eta ordu konkretu batzuetan zenbat eta zein jende mota (haur, gazte, heldu, zahar, emakume eta gizon banaketan) ari den euskaraz edo gazteleraz hitz egiten jasotzea da. Neurketa ez da inkesta bat, hau da, jendeari ez zaio galdeketa egiten, baizik eta zein hizkuntza erabiltzen duten entzuten da. Gure helburua kaleko hizkuntza errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboenean, kalean doazenek ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik. Datu horiek orokortuz gero, urteen ondorioz bilakaerari buruzko informazioa lor daiteke. Honek erabileraren joera ikusteko aukera ematen du.

Aurtengo neurketa garaiz aldatu dugun arren, datuak beste urteetako neurketetako datuekin alderatzen jarraituko dugu. Honako egunetan burutu da datu bilketa: apirilaren 19an (eguna), astegunekoa eta apirilaren 21an eta 22an (zapatua eta domeka), asteburukoak.

Urtero legez, Oñatiko hiru gune bereiztu dira kale neurketa egiterakoan:

-Herri Barrua (H.B.): izen horrekin izendatzen dugu Kale Zaharretik— Agustinoen eliza paretik— Etxaluzeraino dagoen kaleartea, herriko plaza tartean dela. Aurreko urteko moduan, Bidebarrieta ere kontuan hartuko dugu.

-San Lorentzo-Olakua (SL.O.): bi auzo hauetako zerbitzuen arteko ibilbideak eta jendearen egonlekuak.

-Errekalde (ERR.): Errekalde auzoari bira.

Ondoko taulan laburbiltzen den bezala, guneak, egunak eta orduak kontuan izanda 11 ibilbidez osatzen da kale neurketa.

KALEAK	APIRILAK 19 EGUENA		APIRILAK 21 ZAPATUA		APIRILAK 22 DOMEKA	
	GOIZA (12-1)	ARRATS. (4.30-6.30)	GOIZA (11-1)	ARRATS. (6-8)	GOIZA (1-2)	ARRATS. (6-8)
HERRI BARRUA (H.B.)						
SAN LORENTZO OLAKUA (SL.O.)						
ERREKALDE (ERR.)						

*Oharra: taulan grisez dauden lekuetan ez da neurketarik egin.

Ibilbide bakoitzean behatzaile bikote batek kalean une horretan jendea zein hizkuntzatan, —euskaraz ala gazteleraz,— hitz egiten ari den jasotzen du. Datuak jasotzerakoan neurtzaileek bi aldagai hartzen dituzte kontuan: adina eta sexua. Ezinbestekoa da inork ez jakitea neurketa burutzen ari dela. Dena den, kontziente izan behar dugu edozein ikerketaren lehen printzipioaz: ezinezkoa dela ikerketa bat, ikertzen dena eta honen ingurua eraldatu gabe egitea.

Aurten datu gehiago jasotze aldera (esaterako, helduek beraien artean hizkuntza bat erabili ondoren, haurrei zuzentzeko egiten duten hizkuntz



aldaketa), fitxa tekniko¹ aldatu egin dugu. Fitxan lau datu hartzen dira kontuan:

1. **Hizkuntza:** hiru zutabe nagusi ditugu: euskara, frantsesa / gaztelera edo beste hizkuntzak.
2. **Adin taldea:** behin elkarrizketa hizkuntza zehaztuta adin taldea zehaztu behar da: haurrak (14 urte bitartean), gazteak (15-24 urte), helduak (25-64 urte) eta zaharrak (65 urtetik gorakoak). Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa.
3. **Neurtzen dugun taldearen osakera:** behatutako taldea adin talde bereko kideez osaturik dagoen ala ez apuntatuko dugu. Eta ez badira denak adin talde bereko multzoan sartzen, tartean haurrak present dauden ala ez jasoko dugu eta present badira, mintzakide diren ala ez.
4. **Generoa:** bukatzeko mintzakideen sexua jasoko dugu.

Neurketa nola egiten den azaltzeko adibide batzuk jarriko ditugu pausoka:

1/ Senar emazteak erdaraz hitz egiten ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe:

- ① Frantsesa/gaztelera zutabeen (hizkuntza).
- ② Adin talde ezberdinekoak zutabeen, haurrak ez dira mintzakide azpi multzoan.
- ③ Helduetan (adin taldea).

¹ Ikus fitxa tekniko eranskinean.



④ Gizonezkoetan (sexua) makilatxo 1 jartzen da, eta emakumezkoetan beste bat (sexua).

⑤ Haurretako emakumezkoen zutabeen makilatxo bat jarriko dugu (alabarena).

⑥ Gazteen gizonezkoen zutabeen makilatxo 1 jarriko dugu (semearena).

2/ Senar emazteak, 5 urteko alabarekin eta 16 urteko semearekin doaz kaletik, ama alabari euskaraz zuzentzen ari zaio:

① Euskara zutabeen (hizkuntza).

② Adin talde ezberdinekoak zutabeen, haurrak mintzakide azpi multzoan.

③ Helduetan (adin taldea).

④ Gizonezkoetan (sexua) makilatxo 1 jartzen da, eta emakumezkoetan beste bat (sexua).

⑤ Haurretako emakumezkoen zutabeen makilatxo bat jarriko dugu (alabarena).

⑥ Gazteen gizonezkoen zutabeen makilatxo 1 jarriko dugu (semearena).

Azalpena merezi duen puntua da hau: lau lagun elkarrekin doazenean normalean bat entzungo dugu hizketan eta beste hirurak entzule izango dira. Kasu horretan guk fitxan lau lagun entzun ditugula jarriko dugu, hau da, lau makilatxo hizketan zihoan bakar horren hizkuntzan. Tartean haur bat hitz egiten ari bada edo berari zuzendua badago elkarrizketa *haurrak mintzakide* zutabeen jarriko ditugu makilatxoak dagokien azpimultzoan (adin taldearen eta sexuaren arabera).

Fitxaren atzeko partean "beste hizkuntzak" jasotzen dira, alegia, euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu atal honetan sartuko ditugu behatutako pertsonak. Atal honen ondoan "bakarrizketak" neurtzen dituen atala dugu. Bertan, eskuko telefonoz hitz egiten ari direnak eta bestelakoak (animaliekin, atarietako interfonoz, etab.)



apuntatuko ditugu. Atal horretan, jakina, elkarrizketa bakoitzeko marratxo bakarra egingo dugu, mintzakide bakarra entzun (eta ikusiko) baitugu.

Behatzaileek informazioa ondorengo irizpide hauen arabera jaso behar dute:

-Ibilbidean zehar pertsona bera -neurraldi edo elkarrizketa berean- ez dugu behin baino gehiagotan neurtuko. Alegia, pertsona bera jende berdinarekin eta hizkuntza berean entzuten badugu, behin bakarrik jasoko dugu. Aldiz, taldean partaideren bat aldatzen bada (norbait etorri edo norbait joan) edo taldeak hizkuntza aldatzen badu (mintzakideak berdinak izan arren), hori gertaera ezberdina izango da, eta beraz, jaso egingo dugu.

-Neurtzaileekin hitz egiten dutenak ez dira neurtuko (baldintzatuta egon baitatezke); baina neurtzaileekin egon den pertsona bera beste batekin hizketan badago, apuntatu egin behar da.

-Dudazko kasuak ez dira jasotzen, hau da, entzundako hizkuntza zein den ziur ez dakigunean.

-Inoiz ez dugu galderarik egingo, ez galdetu ezer: ez zein adin duen, ez zein hizkuntza erabili ohi duen, ez une horretan zein hizkuntzaz ari den mintzatzen...

3.1. HIZKETAN ENTZUNDAKOAK

Guztira kale neurketak iraun duen 18 ordutan 3.057 pertsonen hizkuntza erabilera jaso da, hau da, 2007an Oñatin erroldatuta zegoen biztanleriaren %28,42rena.

Ondorengo taulan ikus daiteke adin talde bakoitzaren ehunekoak, batetik, orain arte egindako kale neurketa ezberdinetan eta, bestetik, 2006ko erroldan (2006-XII-31):

	HAURRAK		GAZTEAK		HELDUAK		ZAHARRAK		GUZTIRA
KN 89	1.467	%29,14	753	%14,96	2.298	%45,65	516	%10,25	5.034
KN 91	764	%28,02	527	%19,33	1.218	%44,66	218	%7,99	2.727
KN 93	611	%25,18	566	%23,32	1.072	%44,17	178	%7,33	2.427
KN 95	922	%26,58	581	%16,75	1.581	%45,58	385	%11,10	3.469
KN 97	1.132	%28,32	778	%19,46	1.640	%41,03	447	%11,18	3.997
KN 00	770	%26,30	374	%12,78	1.368	%46,74	415	%14,18	2.927
KN 03	849	%27,4	306	%9,88	1.535	%49,55	408	%13,17	3.098
KN 05	933	%34,04	207	%7,55	1.220	%44,51	381	%13,90	2.741
KN 07	986	%32,25	266	%8,7	1.381	%45,17	424	%13,87	3.057
ERROLDA 06	1.435	%13,34	1.026	%9,54	6.159	%57,25	2.137	%19,87	10.757

Ondorengo taulan kale neurketan entzundakoen kopuruak erroldako zein ehuneko osatzen duen ageri da.



	HAURRAK		GAZTEAK		HELDUAK		ZAHARRAK		GUZTIRA	
KN 07	986	%68,71	266	%25,92	1.381	%22,42	424	%19,84	3.057	%28,42
ERROLDA 06	1.435	%100	1.026	%100	6.159	%100	2.137	%100	10.757	%100


Kale neurketaren datuak adierazgarriak direla bermatzeko laginak erroldaren %20a edo gehiagokoa izan behar du. 2007ko neurketan lau adin taldeetatik hirutan betetzen da baldintza hau, haurretan, gazteetan eta helduetan. Datuen baliagarritasuna zalantzan jartzen du beharrezko batz bestekotik beherako laginak jaso izanak, zaharren adin-taldea kasu. Hala ere, zaharren ehunekoa lagin adierazgarrira hurbiltzen da eta datu hauek erabili ditugu ondorioak ateratzeko.



4. EUSKARAREN ERABILERA

4.1. OROTARA

2007ko neurketan Oñatiko kaleetan hitz egiten entzundako 3.057 pertsonetatik, 1.841 ari ziren euskaraz, hau da, **%60,22a** hain zuzen ere. Beraz, datu hauen arabera, oñatiarren erdiak baino gehiagok euskara du ohiko hizkuntza kalean dagoenean.




Emaitza ponderatuz gero, ehunekoa dezente jaisten da, ordea. Horrela, adin talde bakoitzeko lortutako euskararen erabilerari buruzko datuei erroldan talde bakoitzari dagokion pisua emanda, erabilera %52,81ekoa da.

Bilakaera

Orain arte egindako bederatzzi kale neurketetako datuak kontuan izanda, 16 urtetako epean, 12,32 puntutako igoera eman da. 2005eko neurketarekin alderatuz, aurten puntu 1 gutxiagoko emaitza lortu da, azken neurketetan eman den gorakadarekin apurtuz.


<u>Neurketa</u>	<u>Erabilera</u>	<u>Diferentzia</u>	
KN 89	%47,9		
KN 91	%56,3	+8,4	
KN 93	%62,1	+5,72	
KN 95	%57,1	-5	
KN 97	%57,4	+0,3	
KN 00	%56,7	-0,7	
KN 03	%59,81	+3,11	
KN 05	%61,22	+1,41	
KN 07	%60,22	-1	+12,32



4.2. EUSKARAREN ERABILERA ADIN-TALDEKA

2007ko emaitzen arabera lau adin-taldeetan ez da euskara neurri berean erabiltzen. Hona hemen adin-taldeen sailkapena euskara gehien erabiltzen dutenetatik hasita gutxien erabiltzen dutenetara:

1- Gazteak	%87,97
2- Haurrak	%83,97
3- Helduak	%44,03
4- Zaharrak	%40,33




Lau adin-multzoetatik bitan, euskara gaztelera baino gehiago erabiltzen da. Gazteek eta haurrek herriko bataz bestekoa (%60,22a) erruz

gainditzen dute. Heldu eta zaharrak aldiz, herriko batz bestekoaren azpitik hitz egiten dute euskaraz Oñatin.

Kontuan hartu beharrekoa da, ordea, haur eta gazteek Oñatiko biztanleriaren laurdena ere ez dutela osatzen (%22,88a, hain zuzen). Eta beraz, errealitatean gehiengoa (%77,12a) osatzen duten heldu eta zaharren artean, gaztelera dela hizkuntza nagusia.

Bilakaera

Kale-neurketaren benetako balioa, adin-taldeen araberako erabilera urtez urte konparatzen denean agertzen da, orduan bistaratzen baitira gure hizkuntzaren berreskuratze prozesuari dagozkion joera interesgarrienak. Hona hemen egindako kaleneurketa guztietako datuak, adin taldetan banatuta:



EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA ADIN-TALDEKA									
	1989	1991	1993	1995	1997	2000	2003	2005	2007
HAURRAK	66,90%	79,50%	79,90%	78,30%	75,40%	85,90%	87,16%	81,24%	83,97%
GAZTEAK	36,50%	49,30%	75,40%	64,50%	75,90%	75,66%	75,16%	80,19%	87,97%
HELDUAK	36,10%	42,40%	43,80%	40,10%	36,10%	36,54%	45,15%	44,51%	44,03%
ZAHARRAK	63,00%	69,70%	68,00%	65,20%	57,90%	52,02%	46,57%	55,38%	40,33%

Ikus dezagun taldez talde zer gertatu den:

-Haurrak: aurreko kale neurketarekiko igoera eman den arren, 2,73 puntutakoa, ez da oso nabarmena. Haurrak eta gazteak konparatzen baditugu, orain arteko neurketetan hurrek hitz egin dute gazteek baino gehiago euskaraz (1997an ez beste neurketa guztietan). Aurtengo datuei begiraturuz gero, ordea, gazteen adin tarteak 4 puntutan gainditzen du haurren portzentaia.

-Gazteak: azken urteetako beherakada arinaren ostean, aurten ere, 2005ean bezala, neurketako gazteek %80a gainditzen jarraitzen dute. Aurten gainera igoera nabarmena jasan dute: 7,78 puntutakoa, hain zuzen. Ondorioz, Oñatiko gazteen euskararen erabilerak 1989ko gazteenaren bikoitza baino gehiagokoa izaten jarraitzen du.

-Helduak: adin tarte honetan datuak apur bat beherantz egiten duten arren, portzentaia mantendu egin dela esan dezakegu 2005etik hona. Jaitsiera arin hori izanik ere, 1989tik aurten lehenengo aldiz helduek zaharren kopurua gainditzen dute. Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar



helduen euskararen erabilera herriko batz bestekoaren azpiko tramuan mantentzen dela oraindik.

-Zaharrak: gazteen adin tartearekin batera, zaharrena da aldaketarik esanguratsuena jasan duena. 15,05 puntuko jaitsiera eman da zaharretan eta 16 urteetan egon den daturik baxuena lortu da. Helduen modura, zaharren euskararen erabilera ere herriko batz bestekoaren azpiko eremuan mantentzen da.

Laburbiltzeko zera esan daiteke:

Biztanleria zahartzen doan heinean, berau osatzen duten pertsonen adin talde batetik besterako jauzia egitearen ondorioz, beraien hizkuntza ohiturek eragina dute adin taldekako euskararen erabilerari buruzko datuen bilakaeran. Dinamika horrek argitzen du, neurri handi batean behintzat, zaharren euskararen erabilera jasaten ari den etengabeko beherakada; era simple batean esanda, lehen nagusiki erdalduna zen helduen taldea osatzen zutenak (edo batzuek behintzat) gaur egun zaharren taldera paseak dira eta beraiek erabiltzen duten hizkuntzak, berriz, berdina izaten jarraitzen du.

Haurren taldeetik gazteen talderako aldaketan zer gertatzen den ikusteko, aurtengo gazteen datuak 1997ko haurren datuekin aldera genitzake, orduan haurren taldea osatzen zutenek osatzen baitute, hamar urte beranduago, gazteen taldea. Ikusten denez, epe honetan, euskal hitzunen proportzioa asko igo da eta gehiengoak euskaraz hitz egiteari eusten dio.

Azkenik, gazteen taldetik helduenera pasatzeak hauen euskararen erabileraren proportzioan duen eragina zehatz-mehatz neurtzea zailagoa den arren (bi taldeetako adin tartea -10 urtekoa hurrei dagokienean eta 40koa helduei dagokienez, berriz- guztiz ezberdina baita), aurretik aipatutako 0,48ko beherakada adin taldeen arteko mugimendu horren ondorioa izan daiteke, besteak beste. Hau da, helduen taldera azkenaldian sartutakoak erdaldunagoak dira epe berean talde hau utzi dutenak baino.

Haurrak mintzakide direnean

Aurten, fitxa teknikoa aldatzearekin batera, azken urteetan ez bezala, ondorio berriak ateratzeko aukera izan dugu: haurren presentziak nagusiek hitz egiten duten hizkuntzan eraginik izaten duten ala ez.

	ATE: haurrak ez mintzakide		ATE: haurrak mintzakide	
	EUSKARAZ	GAZTELERAZ	EUSKARAZ	GAZTELERAZ
APIRILAK 19	72	118	279	57
APIRILAK 21	29	52	160	40
APIRILAK 22	34	41	82	38

* ATE: Adin Talde Ezberdinekoak

Taulari erreparatzen badiogu, datuak oso adierazgarriak dira. Neurketak iraun zuen hiru egunetan haurrak mintzakide zirenean, gainerako adin tartetek euskararako joera zutela ikusten da; haurrak hitz egiten ez daudenean kontrako joera nagusitzen da.



4.3 EUSKARAREN ERABILERA EZAGUTZAREKIN KONPARATUZ

Orain arte aztertutako erabilerari buruzko datuak ezagutzari buruzkoekin parekatuko ditugu atal honetan. Bere horretan erlatiboak diren erabilerari buruzko datuak baloratzera koan, erreferentzia garrantzitsua da ezagutzari buruzko informazioa. Horrela, %5eko erabilera datu txartzat jo daiteke ezagutza %80koa den herrian; baina bestalde, %5 hori oso datu ona izan daiteke euskara biztanleriaren %6ak ezagutzen duen lekuan.


Irakurketa hau egiteko erabiliko ditugun ezagutzaren datuak 2001ekoak dira (EUSTATEk harrezkero ez ditu datu gehiago atera).

Hona hemen datuak adin taldeka:

	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ZAHARRAK	GUZTIRA
Erabilera 07	%83,97	%87,97	%44,03	%40,33	%60,22
Ezagutza 01	%89,71	%96,20	%73,04	%80,71	%79,34
Diferentzia	%5,74	%8,23	%29,01	%40,38	%19,12

*Ezagutzari buruzko datuak EUSTATEk emanak dira.

Ikus dezakegunez adin talde guztietan euskararen erabilera ezagutza mailaren azpitik dago. Orokorrean erabilera eta ezagutzaren arteko diferentzia 19,12 puntutakoa da. Adin taldeei begiratzuz haurren eta gazteen taldean erabilera eta ezagutza nahiko gertu daude, baina gainerako adin tartetan diferentzia hori nabarmena da; begira bestela zaharretan gertatzen dena: erabilera ezagutzaren erdia da.




Aipatu beharra dago, hala eta guztiz, datu konparaketa ez dela guk nahi genukeen bezain erreal, bi ikerketen artean sei urteko diferentzia dagoelako eta ikusi dugun bezala, adin taldeen arteko jauzi deigarriak urtekoak direlako.


4.4 EUSKARAREN ERABILERA SEXUKA

Sexuaren arabera, euskararen erabileraren maila honako hau duzue:

	EUSKARAZ	GAZTELERAZ
GIZONAK	%61,09	%38,91
EMAKUMEAK	%59,67	%40,33



Ikus daitekeenez, gizon zein emakumeen artean euskararen erabilera nagusi da.



Aurreko urteetan ez bezala aurtengo datuen arabera, Oñatin gizonezkoek emakumeek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz.


Datuen iraulketa horretan eragina izan du bai gizonezko euskal hiztunen proportzioaren gorakadak (1,67 puntutakoa), baita emakumezkoen taldean eman den jaitsiera deigarriak ere (3,03 puntutakoa).

Euskararen erabilera sexuka, adin taldearen arabera

Euskararen erabilerari sexuka eta adin taldearen arabera begiratzen badiogu, honako emaitzok jaso ditugu.

	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ZAHARRAK
GIZONEZKOAK	81,64%	89,13%	45,42%	43,51%
EMAKUMEZKOAK	85,67%	87,36%	43,14%	38,52%





Taulan agertzen denez, gizonezko eta emakumezko heldu eta zaharrak dira euskara baino erdara gehiago hitz egiten dutenak.

Emakume eta gizonezkoen datuak alderatzerakoan, aipagarrienak sexu bateko eta besteko hurrei eta zaharrei buruzkoak dira. Horrela bada, neskatilek mutikoek baino 4,03 puntu gehiago hitz egiten dute euskaraz. Zaharretan, berriz, proportzioa gizonezkoen alde dago, 4,99 puntuko ezberdintasunarekin.

Gazte eta helduen adin taldeetan gizonezkoen aldeko joera badago ere, ezberdintasuna ez da oso esanguratsua.

4.5. EUSKARAREN ERABILERA GUNEA

Orain arteko kale neurketen txostenei begiratuz ikus daiteke gunekako datuen analisiari garrantzi handia eman zaiola. Izan ere, txostenotan atal honen baitan urteko datuez gain hasieratik datuen bilakaera eta adin taldekako datuak ere aztertu izan dira.

Aurten ere, azken neurketan bezala, zonakako neurketa egiten hasita konturatu gara erabiltzen den datu bilketa sistema honek behar besteko lagina lortzea ez duela bermatzen. Horren ondorioz, gure datuetatik ateratako ehunekoak ez direla errealitatearen erakusgarri ohartu gara.

Errekalden adibidez, aurten entzundako zaharren kopurua (lagina) 35 pertsonak soilik osatzen dute. Garbi dago kopuru honek ez duela errealitatea ordezkatzen. Gunekako analisi fidagarri bat egin nahi izanez gero, gutxieneko datu kopuru bat jaso beharko litzateke hori posible egingo lukeen metodo batekin.


Ondorioz, berriz ere mahai gainean jarri beharrekoa da gunekako datuen irakurketaren helburua zein den. Auzo bakoitzeko euskararen erabilera baldin bada ezagutu nahi dena, gainontzeko auzoetara mugitzeko aukera ere egon badago, beti ere, lagineko hiztun kopuruak ez badu pisu handirik ikerketaren emaitzetan. Bestalde, hiztun kopuru garrantzitsu bat baldin bada aintzat hartu beharrekoa eta ikerketari erabateko sinesgarritasuna emango diona, auzoetako datu bilketa alde batera utzi eta jendea gehien biltzen den lekuetara mugatu beharko litzateke kale neurketa.


Azkenik, honelako analisi bat egiterakoan beste era bateko zailtasun bat ere ikusi dugu: jendearen mugikortasuna. Nola ziurta daiteke entzundako pertsona gune horretako biztanlea dela? Jakinekoa da herriko gunea (komertziala, aisialdikoa) nagusiki bakarra izanda, auzoetako jendea ere bertara biltzen dela. Beraz, esan dezakegu gune horietako neurketetan indar egiteak zentzu gehiago duela auzoetan denbora askotan alperrekoa emateak baino.

Hala ere, jarraian aurtengo neurketaren emaitzak sakonago ikusiko ditugu.

Hiru guneetan euskara da gehien erabiltzen den hizkuntza. Gehien erabiltzen den gunea Errekalde dugu (%63,96), ondoren Herri Barrua (%60,01) eta azkenik Olakua-San Lorentzo gunea (%58,49).

Hasteko, aurtengo datuei dagokien taula jarri dugu; ondoren, 2005eko datuen taula, goian esandakoa ikustarazteko.





Ikusten denez, Herri Barruko eta Errekaldeko erabilerek beheranzko joera dute, jaitziera nabarmena ez bada ere. San Lorentzo-Olakuako kasuan, ordea, 6,86 puntutako igoera eman da.


Aurreko txostenetan jasotzen den beste taula bat ondokoa da. Bertan, hiru gunetako datuak konparagarriak izan daitezzen, egueneko datuak ematen dira.

	GUZTIRA	EGUENA 19
HERRI BARRUA	%60,01	%65,11
OLAKUA-SAN LORENTZO	%58,49	%68,68
ERREKALDE	%63,96	%63,96

Herri barruko datuei begiratuta ikusten da emaitza asko baldintza dezakeela datuak egun bakarrean edota egun gehiagotan jasotzeak.

Oraingoan bilakaera guneka aztertuko dugu.






	KN 89	KN 91	KN 93	KN 95	KN 97	KN 00	KN 03	KN 05	KN 07
H.B.	45,70%	57,40%	62,60%	56,80%	58,20%	57,50%	58,58%	62,24%	60,01%
O.S.	57,70%	63,30%	62%	63%	55,60%	56,27%	60,94%	51,63%	58,49%
ERREK.	39,50%	40,60%	53,30%	44,60%	51,70%	52%	68,42%	65,42%	63,96%

Batez ere Errekaldeko kasuan, baina baita San Lorentzo-Olakuakoan ere, urte batetik besterako jauziak deigarriak dira. Ez da sinesgarria batetik, 2-3 urtetako epean euskararen erabilerak hainbesteko aldaketak jasatea; eta bestetik, joera bakar bat izan beharrean bilakaeraren tendentzia aldakorra izatea. Honen arrazoia, behin eta berriz aipatzen gatozena izan daiteke: laginean hain hiztun gutxi izanik, bakar batek ere berebiziko garrantzia har dezake datu orokorretan.


Aurtengo datuak 2005ekoekin konparatuko ditugu. Berriz ere agerian geratzen da aipatu berri dugun arazoa: laginaren urritasunak desfase handiak eragin ditu.

2007





2005



urteak	HAURRAK		GAZTEAK		HELDUAK		ZAHARRAK	
	2005	2007	2005	2007	2005	2007	2005	2007
H.B.	%89,00	%85,95	%72,86	%86,39	%44,21	%43,35	%44,90	%38,44
OL.S.	%78,13	%74,31	%86,36	%85,71	%46,64	%45,05	%54,55	%50,72
ERRE.	%84,92	%78,72	%66,67	%93,65	%52,10	%47,52	%60,00	%37,14

Erreparatu Herri Barruko gazte eta, batez ere, Errekaldeko gazte eta zaharrek 2005etik 2007ra jasaten duten aldaketan. Gazteen adin tartean bi



urteen buruan %13,53 eta %26,98ko igoera eman da, hurrenez hurren, eta zaharretan %22,86ko jaitsiera.



4.6.EUSKARAREN ERABILERA IBILBIDEAREN ARABERA

Ondorengo taulan saio bakoitzean euskaraz entzundakoen ehunekoa ageri da.

KALEAK	APIRILAK 19 EGUENA		APIRILAK 21 ZAPATUA		APIRILAK 22 DOMEKA	
	GOIZA (12-1)	ARRATS. (4.30-6.30)	GOIZA (11-1)	ARRATS. (6-8)	GOIZA (1-2)	ARRATS. (6-8)
HERRI BARRUA (H.B.)	%59,81	%68,88	%56,2	%64,46	%53,85	%51,39
SAN LORENTZO OLAKUA (SL.O.)	%61,9	%74,82	%42,69			
ERREKALDE (ERR.)	%48,84	%73,53				

11 ibilbideetatik bitan entzun zen euskara gaztelera baino gutxiago: Errekalden ostegun goizean (%48,84) eta zapatu goizean (%42,69). Hemen beste behin ere gogorarazi beharrean gaude datuotatik berehalako ondorioak ateratzea arriskutsua dela. Izan ere, horretarako baldintza bat bete beharko litzateke, hau da, gutxieneko lagin bat egon beharko litzateke eta geuk ezin dugu hori betetzen den edo ez ziurtatu. Hala eta guztiz, esan beharra dago aurreko kale neurketaren ondoan, bi ibilbide gutxiago ditugula euskara gaztelera baino gutxiago entzun ditugunak.



4.7. ETORKINAK

Etorkinen azterketa egiteak, ez du eragin handirik datu orokorreari begira. Gainera, definitu egin beharko litzateke zeini dagokion etorkin titulua eta zeini ez. Ez dezagun ahaztu azterketa soziolinguistiko baten aurrean gaudela eta ez azterketa soziologiko huts baten aurrean. Bitxikeria gisa datu hauek jaso gurako balira, ez legoke arazorik, baina beti gogoan izanda ez digutela bukaerako emaitza eta ondoriotan eragingo.



5. ONDORIOAK

2007ko kale neurketaren arabera, gure herriko kaleetan euskara gaztelera baino gehiago hitz egiten da. Hain zuzen ere, Oñatin euskararen erabilera **%60,22koa** da.

- ✓ **Adin talde** bakoitzari dagokionez, **gazteek** hartu diote lekukoa hurrei: 16 urtean lehenengo aldiz Oñatin gazteak dira euskaraz gehien hitz egiten dutenak. Hala ere, **haurrek** gertu gertutik jarraitzen diete. **Helduen** taldeak lehenengo aldiz gainditzen du zaharren kopurua, aurtengo neurketen ehunekoa aurreko urtetik ia mantendu egin duen arren. **Zaharretan** beherakada handia eman da, 1989tik honako neurketetatik portzentaiarik baxuena lortuz.

Honekin lotuta, aipatu behar dugu hiztun talde batean haurrak mintzakide badira, euskara dela nagusi. Umeak mintzakide ez direnean, berriz, helduek eta zaharrek, batez ere, gaztelerarako joera dute.

- ✓ **Ezagutzaren** datuak kontuan izanda, aipagarria deritzogu zaharren adin taldean gertatzen dena: herriko zaharren kopuru handi batek euskara ezagutzen duen arren, erabilera erdira mugatzen da.
- ✓ **Sexukako** datuen **azterketak** erakutsi digu aurtengoan, beste urteetan ez bezala, gizonezko euskal hiztunen ehunekoa emakumeena baino

altuagoa dela. Adin taldearen arabera, neskatilak dira mutikoez baino gehiago euskaraz hitz egiten duten emakumezkoak.

- ✓ Aurreko urteetan bezala, aurten ere **gunekako datuak** jaso ditugu eta hauen irakurketa egin beharrean, guneei buruzko informazio fidagarria lortu nahi bada, datu bilketan aldaketa batzuk egin behar direla erakusteko erabili ditugu. Izan ere, gaur egungo sistemak ez baitu bermatzen gune guztietan behar besteko lagina jasotzea.



6. 2006ko PROPOSAMENEI ERANTZUNEZ

2005eko kale neurketaren emaitzetan aurtengorako proposamen batzuk egin ziren ondorioak esanguratsuagoak izan zitezten. 2007an datu bilketa egiterakoan eta baita ondorengo irakurketan ere, kontuan hartu ditugu gomendio hauek eta jarraian banan banan azalduko ditugu.

Aipatutako proposamenetariko bat neurketa urtaroz aldatzea izan zen. Adin talde bakoitzean behar besteko lagina lortzean (edo hobeto esanda, ez lortzean) eragin zuzena zuen eguraldiak eta neurketa burutu zen garaiak. Horregatik, oraingoan, eguraldiaren oztopoa saihestu alde, udaberrian egin da neurketa, apirilean, hain zuzen. Sasoi aldaketa honek hiztun gehiago entzutea ahalbidetu du, horrela adin talde bakoitzeko %20a (lagina adierazgarria izateko gutxieneko portzentaia) lortu da (zaharretan salbu). Horretaz gain, eragin zuzena izan dute datu bilketako momentuan herrian gertakari batzuk egon izanak (Aloñako mendi igoera, hileta elizkizunak...).

Hala ere, jakinaren gainean gaude, neurketa honek aurretik egin direnekiko bilakaeran eten bat eman dela, entzunaldi guztiak ez baitira sasoi eta baldintza berdinetan burutu. Dena den, garrantzitsuagoa irizten diogu urtaroz aldatzeari, bilakaeran eten hori sortzen bada ere, neurketaz neurketa adin talde bakoitzeko erroldako biztanle kopuruaren behar besteko portzentaia ez lortu eta benetako errealitatea ez islatzen jarraitzea baino.

Honekin lotuta, aipatu dugun erroldako **biztanle kopuruaren %20a** ez jasotzearen aurrean, entzunaldia luzatu edo beste entzunaldi bat edo gehiago egiteko aukera irekita uztea gomendatzen zen. Honen aurrean, datu bilketak egiten hasi aurretik, adin talde bakoitzeko lortu behar genuen gutxieneko portzentaiaren datuak aurreikusi genituen, neurketa egiten ari ginen heinean, datu horietara hurbiltzen ginen edo ez neurtu ahal izateko. Hona hemen aurreikuspena eta benetan lortutako emaitzak:

❖ Aurreikuspena:

KN 07	HAURRAK		GAZTEAK		HELDUAK		ZAHARRAK		GUZTIRA	
	287	%20	206	%20	1.232	%20	428	%20	2.153	%20
ERROLDA 06	1.435	%100	1.026	%100	6.159	%100	2.137	%100	10.757	%100

❖ Lortutako emaitzak:

KN 07	HAURRAK		GAZTEAK		HELDUAK		ZAHARRAK		GUZTIRA	
	986	%68,71	266	%25,92	1.381	%22,42	424	%19,84	3.057	%28,42
ERROLDA 06	1.435	%100	1.026	%100	6.159	%100	2.137	%100	10.757	%100

Bi taula hauek alderatuz, ikusten dugu benetan zein gutxigatik ez dugun lortu %20 zaharretan (aldea 4 hiztunena bakarrik da). Hau ikusita, portzentaiak adierazgarriak izango zirela erabaki genuen, neurketa luzatu edo beste egun batera pasatzeko ideia alboratuz.

Ez ahaztu, urtaro aldaketak ere eragin zuzena izan duela jasotako hitzun kopuruan.

Azkenik, haurren ingurunean sortzen diren hizkuntza aldaketei buruz neurriak hartzea proposatzen zen 2006ko txostenean. Bertan, hizkuntza jauzia izaten den kasuetan hori eragiten duen pertsona lagin bakar gisa konputatzea aholkatzen zen, eta ez bi lagin balira bezala. Gainera, hizkuntza aldaketa kontuan hartzeko esaten zen, hau da, zein hizkuntzatik zein hizkuntzara ematen zen aldaketa hori.

Entzunaldiak egiterako orduan, aldiz, datuak aipatutako eran jasotzeak zekarren zailtasunaren aurrean, haurrak tartean zeudenetan, hauek hitz egiteak edo ez hitz egiteak gainerako hitzunenetan izan zezakeen eragina aztertu dugu, horretarako fitxa tekniko berriak baliatu ditugularik.

